

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Euskara Zerbitzua

2021-2022 ikasturtean hainbat arlotan euskararen erabilera sustatzeko proiektuak diruz laguntzeko deialdiaren ebazpena

Vitoria-Gasteizko Udalaren 2021eko dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorretako 9.2 artikulua betez, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko azaroaren 5ean hartutako erabakiaren berri ematen zaie interesdunei. Bertan, 2021-2022 ikasturtean hainbat arlotan euskararen erabilera sustatzeko proiektuak diruz laguntzeko deialdia ebazten da. Hala dio ebazpen berriak:

2021eko maiatzaren 28an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021-2022 ikasturtean euskararen erabilera sustatzeko proiektuak egiteko dirulaguntzetarako deialdia arautuko duten berariazko oinarriak.

Ekainaren 18an argitaratu ziren ALHAOn deialdia arautzen duten oinarriak. Deialdiaren zuzkidura 96.000,00 eurokoa izan da Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saileko Euskara Zerbitzuaren 2021eko ekitaldiaren aurrekontuaren 0171.3351.48005 diru-atalaren kontura.

Balorazio batzordea 2021eko uztailaren 29an bildu zen, eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko.

96.000 euroko kopurua sei multzotan banatuta dago, modu honetan:

A multzoa: HABEko erregistroan homologatu gisa ageri diren hiriko euskaltegiek antolatutako ekintzak. 12.000 euro.

B multzoa: Guraso-elkarteek edo guraso elkarten federazioek antolatutako ekintza edo jarduera ez ohikoak, ikasleei zein gurasoei begira pentsatutakoak eta sentsibilizazioa edo euskara erabiltzeko ohiturak sortzea helburu dutenak. 21.000 euro.

C multzoa: aisialdian edo kirolean euskararen erabilera sustatzeko proiektuak. 18.000 euro.

D multzoa: Gasteizko euskarazko tokiko hedabideak sendotzea, euren kalitatea eta irismena hobetzeko. 20.000 euro.

E multzoa: Euskararen Nazioarteko eguna ikusmiran hartuta, azaroaren 1etik abenduaren 5era bitartean antolatzekoak diren ekintzak. 19.000 euro.

F multzoa: Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolentzako laguntza. 6.000 euro.

Konkurrentzia-erregimena norgehiagoka bidezkoa izango da (F multzoan izan ezik, hainbanaketa egingo baita). Oinarrien arabera, prozedura norgehiagoka denean, hautatutako proiektuetako bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa erabakitzeko, lortutako puntuazioaren eta atal bakoitzean zehaztutako gehieneko kopuruaren arabera banatuko da multzo horretako kreditua. Ez da inolaz ere gaudituko Euskara Zerbitzuari eskatutako diru-kopurua, eta multzo bakoitzean finkatutako muga errespetatuko da.

Batzordeak proiektuak puntuatu ditu, deialdian ezarrita dauden irizpideen arabera, eta multzo bereko egitasmoak elkarren artean alderatu ditu. Eskabideak aztertu ondoren eta egi-tasmo bakoitzaren balorazioak ikusi ondoren, batzordeak honako puntuazio hauek proposatu

ditu (irailaren 27ko txostenean jasoak). Batzordeak proposatu du A eta F taldeetan soberan geratzen den diru kopurua (7.140 euro guztira) C eta E taldeetara bideratzea, deialdiaren oinarriek ahalbidetzen duten moduan. Beraz, 22.070 euro banatuko dira C taldean eta beste hainbeste E taldean.

TALDEA	ESKATZAILEA	AURREKONTUA	PUNTUAK	DIRULAGUNTZA PROPOSAMENA
A	Ardatz Kultur Elkartea - KulturKA	6.600,00 euro	65	5.280,00 euro
B	Arantzabelako Guraso Elkartea 4	3.800,00 euro	80	1.613,97 euro
B	Ehari Barrutia GE	6.700,00 euro	50	1.206,04 euro
B	Errekabarri Eguzkia 1	4.928,00 euro	80	1.653,73 euro
B	Gurasoak AMPA Luis Elejalde - Rogelia de Alvaro	5.461,00 euro	65	1.356,59 euro
B	Herrandarrak GE	1.300,00 euro	75	587,95 euro
B	Ikasberri GE - Adurtza	3.300,00 euro	75	1.492,48 euro
B	Leku Eder GE - Toki Eder	2.600,00 euro	65	587,95 euro
B	Mariturri GE	7.655,00 euro	75	1.809,06 euro
B	Ramon Bajo GE - hausnarketa prozesua	5.200,00 euro	70	1.477,40 euro
B	Ramon Bajo GE - murala	2.100,00 euro	80	255,68 euro
B	Sagrado Corazón Carmelitas	4.000,00 euro	60	1.447,25 euro
B	Umandi GE	1.000,00 euro	65	313,57 euro
B	Zokozorri GE - Odon de Apraiz	3.000,00 euro	70	464,33 euro
B	Ikasbidea - Iturribero GE 4	4.644,50 euro	75	1.805,81 euro
B	Zabalgana Mendibea GE	6.000,00 euro	70	1.688,46 euro
B	Bambi Landazuri ikastolako GE	4.500,00 euro	70	1.688,46 euro
B	Aintzira Senideak GE	3.430,00 euro	75	1.551,27 euro
C	Araberrri 2 - proiektuen bilketa	8.000,00 euro	58	2.976,71 euro
C	AEPE Arabako Euskal Pilota Elkartea 4	6.000,00 euro	75	1.026,45 euro
C	AFDA 4	3.546,00 euro	75	606,63 euro
C	Arabagara - Eragiteko Janzten	4.375,00 euro	80	3.193,41 euro
C	Arabagara - Elkarrizketa musikatuak	5.000,00 euro	75	2.993,82 euro
C	Euskarabentura	6.809,31 euro	70	1.995,88 euro
C	Euskararen Gizarte Erakundea	15.000,00 euro	70	1.995,88 euro
C	GEU elkarteak - Irakurterraza	2.570,00 euro	70	1.641,41 euro
C	Orbela Alai Dantza elkarteak 3	1.200,00 euro	50	547,44 euro
C	Sarburu - Ohiko ekintzak	2.300,00 euro	75	1.573,90 euro
C	Sarburu - Keinu bat kirolari	900,00 euro	75	598,76 euro
C	ZET euskara taldea - Aisialdia	4.000,00 euro	80	2.919,69 euro
D	Arabako Alea Komunikazio taldea	243.000,00 euro	75	20.000,00 euro
E	Lazarraga Kultur Elkartea - Mintz@dromoa	3.988,66 euro	65	1.698,55 euro
E	Alea - Bideo Bertso Lehiaketa	5.000,00 euro	80	2.405,54 euro
E	GEU elkarteak - Euskarak 365 egun	3.800,00 euro	70	2.044,71 euro
E	Goiena - Kantari	18.775,00 euro	80	7.749,26 euro
E	Mendibea IGE - Zabalgana	3.000,00 euro	65	1.675,28 euro
E	ZET euskara taldea	5.500,00 euro	65	3.071,35 euro
E	Zizta - Euskararen astea	1.180,00 euro	65	658,94 euro
E	Zabalgana Batuz-Bideoa-Margo	1.800,00 euro	65	1.005,17 euro
E	Bai Euskarari Elkartea	6.150,00 euro	50	1.761,20 euro
F	Arduradun Eskola			2.880,00 euro
F	Urtxintxa Astialdi Eskola			2.700,00 euro

1 Errekabarri Eguzkia elkarteak gurasoentzat euskara ikasteko eskolak eta mintzalaguna sartu ditu eskaeran, eta horrelakoek ez dute lekurik deialdi honetan. Batzordeak ekintza horiek aurrekontu osotik kentzea adostu du.

2 Araberri klubak aurkeztu dituen ekintza guztiak proiektu bakarrean bildu dira, beste elkar-teekin alderagarriak izateko. Ekintza horiek guztiak helburu bera dute: klubean euskararen erabilera dinamizatzea.

3 Orbela Alai Salburuko dantza taldearen kasuan, kontuan hartu dira soilik berariaz euskararen sustapena helburu duten ekintzak.

4 Arabako Foru Aldundiak diruz laguntzen dituen proiektuetan, aurrekontuak doitu egin dira ofizioz.

Ikas Kultur Elkartea-Aisiolak aurkeztu duen eskaera ez da onartu, proiektua baloratzeko ezintasuna dela eta. Proiektuak (udako, Aste Santuko eta Gabonetako "udalekuak" edo egonaldiak) euskara sustatzea helburu badu ere, ez du zehazten euskararen erabilera sustatzeko zein ekintza espezifiko egingo diren eta zaila da proiektua baloratzea eta puntuatzea deialdiaren oinarrietan adierazitako balorazio-irizpideen arabera. Gainera, aurkeztutako "udalekuen" proiektuak lekua izango luke Hezkuntza Zerbitzuaren dirulaguntzen deialdian, betiere eskaera Guraso Elkartek egiten badu.

Kontuan harturik, lehenik, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa; bigarrenik, horren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; hirugarrenik, Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudiaren 23. artikulua eta hurrengoek diotena; eta azkenik, dirulaguntzei buruzko Udal ordenantzak ezarritakoa (Udalak 2005eko ekainaren 17an onartua eta 2006ko urtarrilaren 13an ALHAOn argitaratua).

Kontuan harturik Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzuaren misioa eta helburu estrategikoak.

Ikusirik 2020ko urriaren 1eko Eskumenen Ordezkaritzari buruzko Alkatetzaren Dekretua, Gasteizko Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantzaren 5.1. artikulua, eta Toki Araubidearen Oinarrii buruzko Legearen 127.1.g) artikulua, Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko Euskara Zerbitzuaren zinegotzi ordezkariek honako proposamen hau egin dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Proposamena

Lehen. 2021-2022 ikasturtean euskararen erabilera sustatzeko proiektuak diruz laguntzeko deialdia ebaztea, eta koadroan zehazten diren entitateei, bertan zehazten diren diru-kopuruak esleitzea (orotara 96.000 euro), 2021 /0171.3351.48005 diru-atalaren kontura:

TALDEA	ESKATZAILEA	DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA
A	Ardatz Kultur Elkartea - KulturIKA	5.280,00 euro
B	Arantzabelako Guraso Elkartea	1.613,97 euro
B	Ehari Barrutia GE	1.206,04 euro
B	Errekabarri Eguzkia	1.653,73 euro
B	Gurasoak AMPA Luis Elejalde - Rogelia de Alvaro	1.356,59 euro
B	Herrandarrak GE	587,95 euro
B	Ikasberri GE - Adurtza	1.492,48 euro
B	Leku Eder GE - Toki Eder	587,95 euro
B	Mariturri GE	1.809,06 euro
B	Ramon Bajo GE - hausnarketa prozesua	1.477,40 euro
B	Ramon Bajo GE - murala	255,68 euro
B	Sagrado Corazón Carmelitas	1.447,25 euro
B	Umandi GE	313,57 euro
B	Zokozorri GE - Odon de Apraiz	464,33 euro
B	Ikasbidea - Iturribero GE	1.805,81 euro
B	Zabalgana Mendibea GE	1.688,46 euro
B	Bambi Landazuri ikastolako GE	1.688,46 euro
B	Aintzira Senideak GE	1.551,27 euro
C	Araberri - proiektuen bilketa	2.976,71 euro
C	AEPE - Arabako Euskal Pilota Elkartea	1.026,45 euro

TALDEA	ESKATZAILEA	DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA
C	AFDA	606,63 euro
C	Arabagara - Eragiteko Janzten	3.193,41 euro
C	Arabagara - Elkarriketa musikatuak	2.993,82 euro
C	Euskarabentura	1.995,88 euro
C	Euskararen Gizarte Erakundea	1.995,88 euro
C	GEU elkarte - Irakurterraza	1.641,41 euro
C	Orbela Alai Dantza elkarte	547,44 euro
C	Sarburu - Ohiko ekintzak	1.573,90 euro
C	Sarburu - Keinu bat kirolari	598,76 euro
C	ZET euskara taldea - Aisialdia	2.919,69 euro
D	Arabako Alea Komunikazio taldea	20.000,00 euro
E	Lazarraga Kultur Elkarte - Mintz@dromoa	1.698,55 euro
E	Alea - Bideo Bertso Lehiaketa	2.405,54 euro
E	GEU elkarte - Euskarak 365 egun	2.044,71 euro
E	Goiena - Kantari	7.749,26 euro
E	Mendibea IGE - Zabalgana	1.675,28 euro
E	ZET euskara taldea	3.071,35 euro
E	Zizta - Euskararen astea	658,94 euro
E	Zabalgana Batuz-Bideoa-Margo	1.005,17 euro
E	Bai Euskarari Elkarte	1.761,20 euro
F	Arduradun Eskola	2.880,00 euro
F	Urtxintxa Astialdi Eskola	2.700,00 euro

Bigarrena. Ikas Kultur Elkarte-Aisiolak aurkeztutako eskaera ez onartzea, proiektua baloratzeko zailtasunak direla eta: ez du zehazten zer ekintza zehatz egingo diren euskararen erabilera sustatzeko, eta, beraz, ezin dugu proiektua baloratu eta puntuatu deialdiaren oinarrietan adierazitako balorazio-irizpideen arabera. Gainera, aurkeztutako udalekuen proiektua Hezkuntza Zerbitzuaren dirulaguntzen deialdian sartuta egongo litzateke.

Hirugarrena. Ebazpen honen berri ematea erakunde interesdunei, ALHAOn argitaratuta, eta jakinaraztea, halaber, erabaki honek agortu egiten duela administrazio bidea eta berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango dela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte edo argitalpen egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, alde zuzenetik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera. Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Laugarrena. Era berean, dirulaguntzen Datu Base Nacionalean dagokion informazioa argitaratzea, dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 20. artikulua betetzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 8a

Alkatetza eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkaria
RAIMUNDO RUIZ DE ESCUDERO EZCURRA